

## Foru Jauregia bisita gidatuak

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Foru Jauregia bisita egitea gida profesional baten laguntzaz eraikinaren ondare historiko eta artistikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzionamendu administratiboa ezagutzeko.

### Nork tramitatzen du

- GOBERNANTZA DPTUA.
- Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendaritza Nagusia
- Modernizazio Zerbitzua

### Nori zuzenduta

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregia ezagutzeko interesa duten pertsona eta erakunde guztiak.

### Baldintzak

Bisita dohainekoa da eta ordu eta erdi inguru irauten du.

Gutxieneko pertsona kopurua 10ekoa da, eta gehienekoa 20. Modernizazio Zerbitzuak, jasotako eskaeren arabera bisitak osatuko ditu eta gutxieneko kopurura iritsi ezean edo gehieneko kopurua bete bada, eskatzaileari data berria proposatuko dio. Behar bereziak dituzten pertsonak badaude eskaeran hala adieraztea eskatzen dugu.

Bisitak euskaraz, gazteleraz, frantsesez ala ingelesez egin daitezke.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Bisita gidatua eskatzeko posta elektronikoa bidali behar da ondorengo datuekin:  
Norbanakoak:

- Interesatuen izen-abizenak, NANA, e-maila eta telefonoa
- Bisitarako aukeratutako data (ikus behean data aukerak)

Hezkuntza zentroak (gutxienez eskaera bi hilabete lehenago egin behar da):

- Zentroaren izena eta helbidea
- Ikasleen maila
- Arduradunaren izen-abizenak, NANA, emaila eta telefonoa
- Ikasle bakoitzaren izen-abizenak eta NANA
- Bisitarako aukeratutako data
- Bisitarekin lortu nahi den helburua (interes akademikoa, historiko-artistikoa, kulturala, etab.)

### Bisitak egiteko data aukerak:

- LH 5. eta 6. mailako zentroetako ikasleak eta DBH eta Batxilergo zentroak:
- Hilean behin, Batzar Nagusietako osoko bilkurako egunean, goizez (normalean hileko 1. edo 2. asteazkenean - ordutegi tartea 9:00etatik 13:00tara).
- Ostegun arratsaldeetan, arratsaldez (ordutegi tartea 17:00etatik 19:00tara)
- Beste ikaskuntza zentroak eta elkarteak:
- Larunbatetan, goizez (ordutegi tartea 10:00etatik 13:00 arte). Hileko azkena izan ezi
- Hileko 1. edo 3. ostegunean, arratsaldez (ordutegi tartea 17:00etatik 19:00tara)
- Norbanakoak (gutxieneko pertsona kopurua 10):
- Hileko azken larunbatean, goizez (ordutegi tartea 10:00etatik 13:00 arte).
- Hileko 2. edo 4. ostegunean, arratsaldez (ordutegi tartea 17:00etatik 19:00tara) (gutxienez eskaera 15 egun lehenago egin behar da).

### Eskaera moduak

» Internet

### Internet bidezko eskaera

Email bidez eskatuz: [gipuzkoa@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoa@gipuzkoa.eus)

Informazio gehiago behar izanez gero deitu telefono honetara: 943113960

## Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Autentifikaziorik gabe